

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKADIKO TOKI ENTITATEEN TXOSTENARI BURUZKOA, 2012**

---

### **EUSKAL TOKI ENTITATEETAKO KONTUETAN LEGEZKOTASUNA MAILA HANDIAN BETE DA**

#### **2012an euskal udaletan biztanleko gastuak eta zorpetzeak behera egin dute**

Joan den maiatzaren 28an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak aho batez onetsi zuten Euskadiko Toki Entitateen 2012ko ekitaldiari buruzko txostena.

37 udaletan eta udalaz gaindiko 14 entitatetan ez da hutsik azaleratu ez Kontu Orokorra onartzeko epeetan, ez eduki formal eta kualitatiboan ere.

#### **URTEKO KONTUEN EDUKIA**

HKEEk EAEko 251 udalen eta udalaz gaindiko 64 entitateen Kontu Orokorren eduki formala balio-neurtu du eta informatzeko betebeharrari dagokionez, legeria zein mailatan bete den egiaztatu du. Gainera, aurrekontuko likidazioek eta galera-irabazien balantze eta kontuek ezargarria den araudiak agintzen duen informazio guztia besarkatzen dutela eta agiri horiek elkarrekiko koherente direla egiaztatu du.

52 udaletan eta udalaz gaindiko 15 entitatetan ondoko agirietakoren bat ez dela Kontu orokorrean jaso ikusi da: Hona hemen: balantzea eta emaitzen kontua, finantzaketa taula, udal zorrari buruzko informazioa, oroitidazkia eta/edo diruzaintza kontua.

28 udaletan eta udalaz gaindiko 10 erakundetan kontu orokorraren edukiak aurrekontuko alderdietan akatsak ditu, hala nola, kutxa irizpidearen arabera erregistratutako sarrera eta gastuak (13 udaletan eta udalaz gaindiko 7 entitatetan), edota aurrekontuko emaitzaren edo diruzaintza geldikinaren okerreko kalkulua. Ondare kontabilitateari dagokionez, akatsak azaleratu dira 99 udaletan eta udalaz gaindiko 15 erakundetan; horien artean ohikoenak dira amortizazioa ez jasotzea, edota zorraren eranskinaren eta balantzearen arteko bateratasun eza.

Akats hauek batik bat 5.000 biztanletik beherako udaletan gertatzen dira.

## **ONESPEN EPEAK**

HKEEk atzerapenak izan direla ikusi du urteko aurrekontua onestean (162 udaletan eta udalaz gaindiko 28 erakundetan); aurrekontua kitatzean 822 udaletan eta udalaz gaindiko 11 erakundetan) eta kontu orokorra onartzean (59 udaletan eta udalaz gaindiko 18 erakundetan).

13 udalek eta udalaz gaindiko 2 entitatek aurreko ekitaldiko aurrekontuak luzatu zituzten. Ez dago jasoa Kontu Orokorra onartu denik 11 udaletan eta udalaz gaindiko 8 erakundetan.

## **TOKIKO SEKTOREAREN FINANTZA EGOERA**

15 udalek eta udalaz gaindiko 2 entitatek gastu orokorretarako geldikin negatiboak zituztenak 2010eko abenduaren 31n (**defizita**), 2012ko abenduaren 31n finantzatu gabe zituzten.

Euskal udalen autonomia fiskalak (sarrera guztien gainean zerga zuzen, zeharkako, tasa eta bestelako sarrerak) 2012an % 40,14 egin du, aurreko ekitaldian baino % 6,1 gehiago. **Biztanleko gastuak** batez beste 1.245 euro egin ditu, 2011n baino % 11,8 gutxiago. **Biztanleko batez besteko zorpetzea** 294 euroena da (2011n baino % 2,6 txikiagoa); horrek udal sarrera arrunten % 24,81 egiten du. Guztira 71 udalek ez dute zorpetzerik eta 23 udalek, berriz, biztanleko baliaututako zorraren batez bestekoa nabarmen gainditzen dute.

Udalaz gaindiko erakundeei dagokien zorpetzeak 608 milioi euro egiten ditu (2011n baino % 7,9 handiagoa); zorpetze horretatik % 84 Bizkaiko Garraio Partzuergoaren jabetzakoa da. Diru-laguntzetatik eskuratutako diru-sarrerek sarrera guztien gainean % 45 egiten dute.

## **KONTUAK EZ AITORTZEA**

Txostenak dio udal batek eta udalaz gaindiko 7 entitatek ez diotela 2012ko ekitaldiko Kontu orokorra HKEEri bidali.

## NOTA DE PRENSA DEL TVCP DEL INFORME SOBRE LAS CUENTAS DE LAS ENTIDADES LOCALES DE EUSKADI-2012

---

### ALTO GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LA NORMATIVA LEGAL EN LAS CUENTAS DE LAS ENTIDADES LOCALES VASCAS

#### Disminuyen el gasto por habitante y el endeudamiento en los ayuntamientos vascos en 2012

El pasado 28 de mayo el Pleno del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas ha aprobado por unanimidad el Informe sobre las Cuentas de las Entidades Locales de Euskadi, correspondiente al ejercicio 2012.

En 37 ayuntamientos y 14 entidades supramunicipales no se ha detectado ninguna deficiencia en los plazos de aprobación ni en el contenido formal y cualitativo de la cuenta general.

#### CONTENIDO DE LAS CUENTAS ANUALES

El TVCP ha valorado el contenido formal de las Cuentas Generales de los 251 ayuntamientos y 64 entidades supramunicipales de la CA, verificando el grado de cumplimiento de la legislación en cuanto al deber de informar. Además, se ha comprobado que las liquidaciones presupuestarias, y los balances y cuentas de pérdidas y ganancias contienen toda la información exigida en la normativa de aplicación y que estos documentos son coherentes entre sí.

En 52 ayuntamientos y 15 entidades supramunicipales se ha detectado la **falta de inclusión** en la cuenta general de alguno de los siguientes **documentos**: los siguientes documentos: balance y cuenta de resultados, cuadro de financiación, información sobre la deuda municipal, memoria y/o cuenta de tesorería.

En 28 ayuntamientos y 10 entidades supramunicipales el contenido de la cuenta general presenta **deficiencias** en cuanto a **aspectos presupuestarios**, tales como ingresos y gastos registrados por criterio de caja (13 ayuntamientos y 7 entidades supramunicipales), o cálculo incorrecto del resultado presupuestario o el remanente de tesorería

En cuanto a la **contabilidad patrimonial** se han detectado **deficiencias** en 99 ayuntamientos y 15 entidades supramunicipales, las más comunes la no inclusión de la amortización, o la falta de coincidencia entre el anexo de deuda y el balance.

Estas deficiencias afectan principalmente a los ayuntamientos con menos de 5.000 habitantes.

### **PLAZOS DE APROBACIÓN**

El TVCP ha detectado retrasos en la aprobación del presupuesto anual (162 ayuntamientos y 28 entidades supramunicipales), de la liquidación del presupuesto (22 ayuntamientos y 11 entidades supramunicipales) o de la cuenta general (59 ayuntamientos y 18 entidades supramunicipales).

En 13 ayuntamientos y 2 entidades supramunicipales se prorrogaron los presupuestos del ejercicio anterior. No consta la aprobación de la Cuenta General en 11 ayuntamientos y 8 entidades supramunicipales.

### **SITUACIÓN FINANCIERA DEL SECTOR LOCAL.**

15 ayuntamientos y 2 entidades supramunicipales con remanentes para gastos generales negativos a 31 de diciembre de 2010 (**déficit**), no los habían financiado a 31 de diciembre de 2012.

La autonomía fiscal de los **ayuntamientos** vascos (*ingresos por impuestos directos, indirectos, tasas y otros ingresos sobre el total de ingresos*) ha alcanzado en 2012 el 40,14%, un 6,1% más que el ejercicio anterior. El **gasto por habitante** ha supuesto una media de 1.245 euros, un 11,8% menos que en 2011. El **endeudamiento medio por habitante** es de 294 euros (2,6% menos que en 2011), lo que supone un 24,81% de los ingresos corrientes municipales. 71 ayuntamientos carecen de endeudamiento y 23 superan significativamente la media de deuda dispuesta por habitante.

El endeudamiento correspondiente a las **entidades supramunicipales** supone 608 millones de euros (7,9% más que en 2011), del que un 84% es titularidad del Consorcio de Transportes de Bizkaia. Los ingresos obtenidos por subvenciones suponen el 45% del total de sus ingresos.

### **NO RENDICIÓN DE CUENTAS**

El Informe señala que 1 ayuntamiento y 7 entidades supramunicipales no han remitido su cuenta general del ejercicio 2012 al TVCP.